

Estatutuek gure unibertsitateari ematen dizkienetan helburu ugari eta osagarrien arteko batzuk dira kalitateko goi mailako hezkuntza eskaintza, ikasleen heziketa osoa bultzatzea eta lanean hasteko beharrezko den prestakuntza ziurtatzea. Zeregin horretan, UPV/EHUk unean uneko errealtitate sozialarekin bat datozen prestakuntza aukerak eskaintzen ditu bere ikastegien bitartez. Besteak beste, prestakuntza dualeko programak eskaintzen ditu graduoko titulazioetan. Programok gobernatzen dituen esparru arautegia UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak onartu zuen 2020ko apirilaren 8ko Erabakiaren bidez.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak 2020/2021 ikasturteaz geroztik dazka ezarrita prestakuntza dualeko programak bere graduetan. Harrez gero, garbi geratu da beharrezko dela esparru arautegi haren barruko arautegi espezifiko bat egitea, bertan aipatzen ez diren edo oso modu orokorrean jasotzen diren zenbait kontu akademiko eta administratibo garatzeko, zehazteko eta espezifikatzeko.

Horretaz jabeturik, Fakultateko Batzarrak,(e)ko bileran, **«Fakultateko Graduetako Prestakuntza Dualeko Programen Arautegi Osagarria»** onartu du, bere arautegiak egiteko gaitasuna baliaturik, gaitasun hori aitortzen baitzaio UPV/EHUko Estatutuetako 5.2 artikuluan, Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 10.2 artikuluan eta UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiko 32.4 artikuluan (2019ko uztailaren 24ko Erabakia).

I. KAPITULUA. ESKAINITZA DUALA ARGITARATZEA

1. artikulua

Fakultateko graduetako prestakuntza dualeko programen eskaintza urtero argitaratuko da. Ikasturte bakoitzari dagokiona aurreko ikasturtean argitaratuko da, martxoaren amaieran. Argitaratzen denetik udaberriko oporretara, dekanotzak hitzaldiak emango ditu programok azaltzeko.

Destinoak fakultateak baino ez ditu eskainiko.

II. KAPITULUA. MATRIKULA PROZESUA

2. artikulua. Izena ematea:

Izena emateko epea hasiko da urteko eskaintza argitaratzen denean eta handik bi hilabetera amaituko da.

Izena emateko ezinbestekoa izango da 90 ECTS kreditu gaindituta izatea, graduoko lehen mailaren eta bigarren mailako lehen lauhilekoaren artean.

3. artikulua. Destinoa esleitzea:

- 1.- Maiatzaren 15etik aurrera, ikasleei esleitutako empresa/erakundeen zerrenda argitaratuko da.
- 2.- Behin zerrenda argitaratuta, epea hasiko da ikasleek elkarrizketa egiteko empresa/erakundeekin, behin betiko destinoak emateko.
- 3.- Ezinbestekoa izango da ikasleak elkarrizketa horietara joatea. Ikaslea elkarrizketara azaltzen ez bada arrazoi justifikaturik gabe, eskaria bertan behera utzi duela ulertuko da.
- 4.- Praktiken Dekanordetzak emango ditu behin betiko destinoak, eta ekainean argitaratuko du esleipena.

4. artikulua. Matrikula

Behin betiko destinoa esleitu ondoren, matrikula ofizioz egingo du fakultateak. Ezinbestekoa izango da matrikula egiteko unean ikasleak 120 ECTS kreditu gaindituta izatea.

III. KAPITULUA. UKO EGITEA

5. artikulua

Matrikula behin eginda, ikasleak plazari uko egiten badio **matrikula aldatzeko iraileko epea** hasi aurretik edo irekita dagoen bitartean, hautazkoak aukeratu ahal izango ditu (epe horren barruan matrikula aldatuz) oraindik itxita ez dauden irakasgaien artean.

Ikasleak uko egiten badio praktikari eskolaldian zehar, egutegi akademikoan aurreikusitako **bigarren matrikulaldian** matrikulatu ahal izango da hautazko irakasgaietan, betiere lekurik baldin badago.

IV. KAPITULUA. PRESTAKUNTZA DUALAREN AIPAMENA

6. artikulua

Ikasleak aipamen hori lortzeko, ezinbestekoa izango du ibilbide dual osoa amaitzea eta gainditzea. Ibilbidea etenez gero, arrazoia edozein dela ere, ezin izango du aipamena lortu.

Entre los diversos y complementarios fines que los Estatutos de la UPV/EHU atribuyen a nuestra Universidad se encuentra el de ofrecer una educación superior de calidad que contribuya a la formación integral de los estudiantes y asegure su preparación profesional para la inserción en el mundo laboral. En esta tarea la UPV/EHU mediante sus Centros, ofrece ofertas educativas acompañadas a la realidad social del momento. Entre ellas, los programas de formación dual en las titulaciones de grado, cuya normativa reguladora marco lo representa el acuerdo de 8 de abril de 2020 de la Comisión Permanente del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU.

La Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación ha implantado ya dichos programas de formación dual en sus diversos grados a partir del curso 2020/21. El transcurso del tiempo desde esta implantación ha puesto de manifiesto la necesidad de elaborar una normativa específica dentro del marco del acuerdo referido que desarrolle, concrete y especifique ciertas cuestiones académicas y de gestión no o escasamente abordadas.

Consciente de esta realidad, la Junta de Facultad en su reunión de fecha.....ha procedido, a tenor de su capacidad autonORMATIVA reconocida en los arts. 5.2 de los EE UPV/EHU, 10.2 del RMC y 32.4 de la normativa reguladora de las prácticas externas de la UPV/EHU (resolución del 24 de julio de 2019), a aprobar la siguiente **"Normativa complementaria de los programas de formación dual de los grados impartidos en el Centro"**.

CAPÍTULO I: PUBLICACIÓN DE LA OFERTA DUAL

Art. 1

La publicación anual de la oferta de los programas de formación dual de los grados de la Facultad se realizará a finales del mes de marzo del curso académico anterior a su inicio. En el periodo comprendido entre dicha publicación y las vacaciones de primavera, el Decanato ofertará charlas informativas sobre tales programas.

Los destinos los oferta exclusivamente la Facultad.

CAPÍTULO II: PROCESO DE MATRÍCULA

Art. 2: Preinscripción:

El plazo de preinscripción quedará abierto desde la publicación de la oferta anual, finalizando dos meses más tarde.

Será requisito necesario para poder formalizar la preinscripción contar con 90 créditos ECTS superados correspondientes a primero de grado y a primer cuatrimestre del segundo curso del grado.

Art. 3: Asignación de destino:

- 1.- A partir del 15 de mayo el Decanato hará pública la relación del alumnado preasignado a cada empresa/entidad conveniada.
- 2.- Hecha pública la relación anterior, se abrirá el plazo de entrevistas del alumnado con las empresas/entidades conveniadas a los efectos de proceder a la asignación definitiva de destino.
- 3.- Es obligación del alumnado comparecer a la entrevista o entrevistas señaladas en el apartado anterior. Si no compareciere sin causa suficiente alegada, se entenderá que desiste del programa.
- 4.- La asignación definitiva de destino la realizará el Vicedecanato de Prácticas, haciéndose pública a finales del mes de junio.

Art. 4: Matrícula:

La matrícula la realizará de oficio la Facultad tras la asignación definitiva, siendo imprescindible contar con 120 créditos ECTS superados al tiempo de su formalización.

CAPÍTULO III: RENUNCIAS

Art. 5

Una vez oficializada la matrícula, si la renuncia se realizara antes o durante el período de **modificación de matrícula en septiembre**, se podrá elegir optatividad -modificando la matrícula en plazo- entre aquellas asignaturas con cupo aún abierto.

Si la renuncia se realizara una vez iniciado el periodo lectivo, el estudiante podrá matricularse en asignaturas optativas durante el plazo de **ampliación de matrícula** previsto en el calendario de gestión académica, siempre que el cupo de las mismas no estuviere ya cerrado.

CAPÍTULO IV: LA MENCIÓN DUAL

Art. 6

Dicha mención sólo se puede obtener tras haber completado y superado íntegramente el recorrido dual. La interrupción del mismo, independientemente de su causa, impedirá obtener dicha mención.